


KULTURKRITIKA

» **LIBURUA**

Gure gerren polifonia bizia



Amaia Serrano Mariezkurrena



Poliedroaren hostoak

JOAN MARI IRIGOIEN

Erein, 1983.

Joan Mari Irigoienek 80ko hamarkadaren hasieran argitaratutako obra honek 1995eko edizio berrituari esker izan du oihartzuna, batik bat. Alta, hemen jatorrizkoari helduko diogu, idatzaldi haren testuinguruak (Trantsizioaren hasiera eta euskal eleberrigintza modernoaren tradizio laburra) eta egiten duen proposamen literario ausartak merezi dutela iruditzen zaigulako.

Karlismotik Trantsizioaren hasiera arteko euskaldunen memoria kolektiboaren narrazioa egiten da obra honetan. Hala ere, ez da ohiko kontaketa historiko-kronologikoa, errealismo hutsez harago, surrealismotik, errealismo magikotik eta abarretatik edaten baitu. Garai historiko bakoitza teknika narratibo baten bidez irudikatzen du, hainbat testu literarioi (batez ere mexikar literaturari) eta erlijiosori eginiko keinuez eta mundu sinboliko joriaz horniturik.

Mundu-ikuskera oso ezberdina duten pertsonaiez josia da obra. Hasierako sinpletasuna eta dualismoa, konplexutasun eta aberastasun bilakatuz doaz. Badago epistemologia platonikoari heltzen dion pertsonaiarik, baina bada egia eta errealitatea hautemateko ezintasuna agerian uzten duenik ere. Ideologia politikoei dagokienez, karlismo garaiko pertsonaiak, liberal nahiz karlista, oso markatuak dira. Haatik, bitasun hori II. Errepublikan zehar urtzen hasten da, posizio politiko ugari loratu eta anarkistak edo sozialistak agertzeraino. 1936ko Gerraren ondoren belaunaldi galduaren eta konprometituaren arteko tentsioetan jartzen du fokua. Lehenak, jarauntsi politikoa saihesteko, euskalduntasunik gabe heziak dira; aldiz, bigarrenak konpromiso

pisua sentitzen dute. Bien mugek eta zamek bizitza bera zalantzan jartzera daramatzate, azkenean eztanda egiten duen arte.

Pertsonaiek sortzen duten narrazio koralaz gain, denboraren kontzeptualizazioa da eleberraren gakoetako bat. Denbora eternala, etena, ziklikoa edo kronologikoa izan daiteke, eta batetik besterako jauziek erakusten dute hasierako poemak iradokitzen duena: denbora ez da soilik erlojuak markatzen duena.

Ildo horri jarraitzen dio eleberraren egitura ziklikoak, bai gerrak bata bestearen atzetik kontatzen direlako, bai sarrera eta amaiera hildakoen ahotsek harilkatzen dutelako, Trantsizioaren historia aldatzen duen mendeku poetiko batekin, gainera.

Nobela mardula, sendoa eta erreferentziaz betea da, pasarte antologikoak dituen eta euskaldunon gatazken pitzadurak azaleratzen dituen; alabaina, teknika batzuk errepikatzen ditu, eta errealitatearen ikuspegi poliedrikoa besarkatzeko saiakeran luze jotzen du. Lan anbiziotsuegia akaso, baina, euskal eleberraren historian esanguratsua, joera literario berrien ildoetatik eraikia. ■



"Poliedroaren hostoak"
Joan Mari Irigoien
(Altza, 1948) idazlearen
bigarren nobela izan zen.